


# URUMEAKO kronika

2018/08/27



PDF

**HERNANI** Abuztuak 27



albistea//**ERGOBIAKO ZUBIA**

«**Jende askok ez daki garai batean **Ergobiako** zubia ze puntutaraino izan zen esanguratsua**»

**Ergobia**ko zubiaren 500 urteak ospatuko dituzte azkeneko egunean, eta gogoratuko dute garai batean zubi honek izan zuen garrantzia. Astelehenean izango da hori; gaueko 23:00etan hasita, jaiei agur esateko su artifizialak botako dituzte, eta zubi historikotik ikusi ahal izango dira, «lehen zuen garrantzia gogoratzeko».

## ASTIGARRAGA

2018/08/25 00:00 Larunbata

Azken urteetan asko aldatu da **Ergobia**: etxe gehiago daude, Astigarragatik lotuago dago... baina bada zerbait, bertan mantentzen dena, nahiz eta ingurua asko aldatzen ari den. Hori da, hain zuzen, **Ergobia**ko zubia.

Egun, Hernani eta Astigarragaren arteko 'bueltaxka' egiteko erabiltzen denak, ezinbesteko garrantzia izan zuen, XVI. mendetik XIX. mendera arte. Hau da, 1870ean errepidea Donostiatik desbideratu zen arte.

“ Urumea ibaian zehar harriz eraiki ze aurreneko zubia da, hau da, bide horretan dagoen «zaharrena» da.

Zubiaren garrantzia hori aldarrikatzeko, ospakizuna egingo dute astelehenean: «zubiaren omenez su artifizialak botako ditugu, eta zubitik bertatik ikusi ahal izango dira», azaldu dute antolakuntzatik. Izan ere, «zubi hau oso zaharra da, eta jende askok ez daki garai batean ze puntutaraino izan zen esanguratsua». Gaueko 23:00etan hasita izango da hori, zezen suzkoarekin eta jaien bukaerarekin batera.

### 1518koak, aurreneko datuak

Aurreneko datuen data hartu dute kontuan **ergobia**rek aurtengo omenaldia egiteko. Data hori aipatzen du Javier Sadak Los Puentes de San Sebastián (2003) liburuan: «Donostiako mugetatik haratago, Astigarragako Ergobia auzoan, zubi berri batek Urumeako urak zeharkatzen ditu duela, gutxienez, bost mendez geroztik. Askoren esku dauden leku askorekin gertatzen den bezalaxe, txoko honen inguruan agertzen diren albiste gehienak peaje eta mantenimendu erantzukizunekin zerikusia duten auziak dira; Murgiako jauntxoek eta Donostiako hiribilduaren artekoak. Datu zaharrenak 1518koak dira».

“ XVIII. mendean izandako uholdeek, zubia bota eta dena aldatu zuen; Diputazioak bere gain hartu zuen eraikitzea, baina harrizkoa egingo zuela jakinarazi zuen.

Gutxienez ordutik 1578ra arte, Murgia familiarena izan zen, ordainsarirako eskubidea galdu baitzuen orduan.

### Uholdeak XVIII.mendean

Orduko datuen arabera jakin da aurreneko zubia egurrezkoa zela, eta ondorioz, mantenuko eta konponketetarako gastua oso altua zela. XVIII. mendean izandako uholdeek, zubia bota eta dena aldatu zuten; Sadak azaltzen duenaren arabera, Diputazioak bere gain hartu zuen berriro ere eraikitzea, baina harrizkoa egingo zuela jakinarazi zuen. 1729ra arte ez zen, ordea, zubirik eraiki. Kostu ekonomikoa, batetik, eta burokraziak, bestetik, asko atzeratu zuten lana. XVIII. mendeko zubia, orain dagoena, alegia, Sebastian de Lecuona arkitektoak diseinatutakoa da; obra, aldiz, Manuel de Ejeak zuzendu zuen.

### «Garrantzia estrategikoa»

Garai hura aztertu dutenek, tartean Javier Sadak, baita **Ergobia**ko Jai Batzordeak ere, zubiaren «garrantzia estrategikoa» nabarmentzen dute.

Bereziki, Gipuzkoako hiru Errege Bideetako batean kokatuta zegoelako; Guía de Astigarraga (naturaleza y huella humana) liburuak azaltzen duen bezala, «zaharrena zen hau, San Adriandik Frantzia eta Gaztela lotzen zituen, eta Astigarragatik pasatzen zen. [...] **Ergobian** Urumea ibaiarekin elkartzen zen, Donostiarekin eta errioren lur altuekin lotzen zen bidea zen. Hori horrela, probintziako bi bide garrantzitsuen ardatz bihurtu zen».

Horrez gain, Donejakue Bidea pasatzen da bertatik; eta 2012tik, gainera, Kultura Ondasun Sailkatua izendatu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, bide horretako beste hainbat monumenturekin batera.

Eta hori gutxi balitz, Urumea ibaian zehar harriz eraiki zen aurreneko zubia da, hau da, bide horretan dagoen «zaharrena», nabarmendu dute **Ergobiatik**.

## Kareharrizko zubia, egungoa

Egun 1729ko zubiak dirau, nahiz eta hainbat konponketa egin izan zaizkion. Astigarragako Udalaren web-orrian dioenaren arabera, «kareharri landuz egina dago, eta beheratutako erdi-puntuko hiru arku ditu, zubi-bular indartsuak ditu kontrakorrantean eta uretan behera».

## Auzoaren izenaren jatorria

Bitxikeria bezala, badirudi auzoaren izena ere, zubia zeharkatzen zuen Errege Bidetik etorri daitekeela: Errege Bide-tik, Er-go-bia.

Atsegin dut 0

Whatsapp

Emaila

Inprimitu

## IRUZKINAK



 PDF

**HERNANI** Abuztuak 27

## ESKELAK

**HERNANI**

*Antonio Gomez Gomez*



**Agenda Bateratua**